

## HEOko azterketa eredua – Euskara B1 – Entzunaren Ulermena

### 1. ENTZUNGAIA

Ariketa honetan Euskadi Irratiko 7 informazio entzungo dituzu. Zuk ariketa honetan (A-I) esaldiak dituzu, eta entzungo dituzun informazioekin parekatu behar dituzu. *0 zenbakia* adibidea da, eta bi esaldi sobran daude.

*Euskadi Irratia (moldatua)*

### Esaldiak

#### *X. Euskaraz egitera animatu.*

- A. Altzariak berritzeko eskaintza.
- B. Animalia baten ugalketa pozgarria.
- C. Atxilotuak kaleko istiluengatik.
- D. Donostian zinema aretoak itxita.
- E. Indigena talde bat desagertzeko zorian.
- F. Kargu batek euskaraz ez jakitea eztabaidagai.
- G. Ospitaletan garbitasun neurriak.
- H. Segurtasun-neurri bereziak ezarriko dituzte.
- I. Zinema jende gehiagoren eskura.

<b>Berriak</b>	<b>0</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>6</b>	<b>7</b>
<b>Esaldiak</b>	<b>X</b>							

## 2. ENTZUNGAIA

Lizoain herrian gertatutako lurrikara dela eta, bertako alkatea den Koldo Albirari eginiko elkarrizketa bat entzungo duzu. Ariketa honetan sei informazio irakurriko dituzu, eta informazio hauek egia edo gezurra diren esan behar duzu. *0 zenbakia* adibidea da.

*Euskadi Irratia* (moldatua)

**0. Lurrikara gertatu eta gero jendea oso lasai zegoen.**

- a) Egia
- b) *Gezurra*

**8. Auzokideen deiak izan ditu, gauean batez ere.**

- a) Egia
- b) *Gezurra*

**9. Lizoainen nabaritu duten lurrikararik handiena izan da.**

- a) Egia
- b) *Gezurra*

**10. Aretxabalaren iritziz, arrisku handiko lurraldea da Iruñerria.**

- a) Egia
- b) *Gezurra*

**11. Auzokideek esan diote ikaratuta daudela.**

- a) Egia
- b) *Gezurra*

**12. Lurrikarak kalte handiak eragin ditu.**

- a) Egia
- b) *Gezurra*

**13. Lurrikarek ikaratzen gaituzte ohituta ez gaudelako.**

- a) Egia
- b) *Gezurra*

Informazioak	<b>0</b>	<b>8</b>	<b>9</b>	<b>10</b>	<b>11</b>	<b>12</b>	<b>13</b>
Erantzunak	<b>b</b>						

### 3. ENTZUNGAIA

Ariketa honetan Reyes Ilintxeta kazetaria eta Oier Apaolaza antropologoa *Halloween* jaiaren inguruan arituko dira. Elkarrizketa bi aldiz entzungo duzu. Ariketa honetan hiru erantzunetatik bat bakarrik aukeratu behar duzu. *0 zenbakia* adibidea da.

*Euskalerria Irrati. Irrintzi Plaza (moldatua)*

**0. *Halloween* ospakizuna non sortu zen?**

- a) Amerikan sortu zen.
- b) *Europako Mendebaldean sortu zen.*
- c) Euskal Herrian sortu zen.

**14. Euskal Herrian *Halloween-en* antzeko ospakizun bat zegoen...**

- a) Duela asko desagertu zen.
- b) Duela gutxi utzi zitzaion ospatzeari.
- c) Oraindik ospatzen da toki batzuetan.

**15. Neguko festa guztien ezaugarria da...**

- a) etxe batean biltzea lagunekin.
- b) lagunekin ibiltzea etxe batetik bestera.
- c) mozorroak erostea.

**16. Gure arbasoen ohiturak...**

- a) Amerikarrek kopiatu dizkigute.
- b) erraz ahaztu ditugu.
- c) gordetzen jakin izan dugu beti.

**17. Orain *Halloween* ospatzen dugu urtero.**

- a) baina bakarrik itxurarekin geratu gara.
- b) eta jaia barrenean sentitzen dugu.
- c) eta lan izugarria ematen digu.

**18. Lehengo *Halloween-en* birziklatzen zen...**

- a) arropa zaharra erabiliz, berririk erosi gabe.
- b) erabiltzen zuten guztia besteei salduz.
- c) mozorroak bigarren eskuko dendetan erosiz.

**19. *Halloween* ospakizuna orain ezberdina da.**

- a) egun horretarako erosten dena oso garestia delako.
- b) gutxi batzuek bakarrik ospatzen dutelako.
- c) orain negozio ikaragarria delako.

<b>Galderak</b>	<b>0</b>	<b>14</b>	<b>15</b>	<b>16</b>	<b>17</b>	<b>18</b>	<b>19</b>
<b>Erantzunak</b>	<b>b</b>						

#### 4. ENTZUNGAIA

Gorka Velasco marrazkilariari **INKTOBER (INKURRIA Euskal Herrian)** izeneko egitasmoaren gainean egindako elkarrizketa entzungo duzu bi aldiz. Ariketa honetan hiru erantzunetatik bat bakarrik aukeratu behar duzu. **0 zenbakia** adibidea da.

*Euskadi Irratia (moldatua)*

**0. Zer da INKURRIA egitasmoa?**

- a) INKTOBER egitasmoaren egokitzapena euskaraz.
- b) INKTOBER egitasmoaren lehenengo urratsa.
- c) INKTOBER egitasmoaren ordezkoa mundu mailan.

**20. Zer proposatzen du INKURRI egitasmoak?**

- a) egunero tintaz marrazki bat egiten saiatzea.
- b) urriko egun guztietan tintaz marrazki bat egitea.
- c) urtero urrian tintaz marrazki bat egitea.

**21. Gorka Velascok askotan parte hartu du egitasmo honetan.**

- a) bakarrik parte hartu du, inorekin kontatu gabe.
- b) parte hartu du beste askorekin batera.
- c) sortu zenetik parte hartu du.

**22. Norentzat dago zuzenduta egitasmo hau?**

- a) marrazkilari trebeak direnentzat.
- b) marrazten ez dakitenentzat bereziki.
- c) nahi duenarentzat, marrazkilari ona bada.

**23. Zer marraztu behar dute parte hartzen dutenek?**

- a) antolatzaileek agintzen dutena, denok berdin egiteko.
- b) egunero zerbait proposatzen diete zer marraztu ez dakitenei.
- c) nahi dutena. Ez da horretan proposamenik egiten.

**24. Zer esaten die Gorkak lotsa dutenei?**

- a) egitasmo hau oso egokia dela lotsa galtzeko.
- b) lotsari buruz marrazki bat egiteko.
- c) parte hartu aurretik pixka bat trebatzeko.

**25. Quino marrazkilari handiaz zer dio Gorkak?**

- a) Euskal Herriko marrazkilaririk handiena dela.
- b) Haren erreferente nagusia dela.
- c) marrazkilari handia dela, handiagorik bada ere.

**26. Olariaga marrazkilariaz zer dio Gorkak?**

- a) 88 urterekin hil dela.
- b) euskalduna izateagatik apalagoa dela.
- c) Quinok baino oihartzun handiagoa duela.

<b>Galderak</b>	<b>0</b>	<b>20</b>	<b>21</b>	<b>22</b>	<b>23</b>	<b>24</b>	<b>25</b>	<b>26</b>
<b>Erantzunak</b>	<b>a</b>							